


Villafría de San Zadornil-Arroyo de San Zadornil-San Zadornil

PRC-BU 100 eta PRC-BU 97 Errotak eta gaztainondoak Arzena mendizerrapean



Kokapena


Ibilbideak Arzena mendizerraren altzoan zabaltzen den San Zadornil bailarako herriak lotzen ditu. Burgoseko beste herrietara joateko errepideek derrigorrez Arabako lurraldea zeharkatu behar dute. Ipar Mendebaldean bailara Peña Karria (1.130 m.) mendiaren hormatarrek ixten dute. Hegoaldean Revillallanos mendiak, Arzenan, hegoaldetik inguratzen du. Mendebaldean Ribera dago, non Laastrarako bidea har dezakegun.

Zenbait altxor natural

Arroyo de San Zadornil San Zadornil: Historia, artea, ohiturak eta natura hainbesteko kalitate eta nortasunarekin uztartzen dituen toki gutxi daude gaur egun. Arroyon Santa Maria eliz ikusgarria ikusi ahal dugu eta baita bolatokia, garbitokia eta aintzinako etxe berregin batzuk.

San Zadornil: San Saturnino, XII. mendeko eliz erromaniko ederra izan daiteke eraikuntzarik ikusgarriena, baina bere inguruan lastotegiek, errotek, nekazaritza tresnak godetzeko etxolek eta etxebizitzek multzo arkitektoniko aberats eta harrigarria osatzen dute.

Baso kudeaketari bagagozkio penintsula iberiarreko baso emankorrenetako bat dugu hau. Onura Publikoko Mendien kudeaketaren eredu har daiteke. Gorostiak, erkametzak, arteak, pinuak eta gaztainondoak dira espezie nagusiak. Duela gutxi arte herri hauetako auzokoek gaztainen salmentari esker diru iturri erantsia zuten.



IBILBIDEA

0 Km. / Oh. 0' Gaur *Burgosera* hurbiduko gara, *Montes Obarenes – San Zadornil* parke naturaletik ibilbide bat egiteko. **Villafría de San Zadornil** herritik abiatuz, **PRC-BU 100** bidexkako markak jarraitu beharko ditugu. Ibilbidea ondo hasteko, adi egon beharko dugu, puntu honetatik bide asko ateratzen dira eta. Uraska bat ezkerrean uzten, harrizko eta zabala den pista batetik, hasiko gara ibiltzen. Lehenengo 1,8 kilometroak oso jaitsiera erosoak izango dira astigar, ametz eta pinuen artean, zeinek Arabako mugara eramango gaituen. Arabako aldean *Valderejoko Parkeko* kartelak agertuko dira. Marka horiak eta zuriak jarraituz, eskumatara joko dugu Ampo erreka gurutzatzeko eta igoera leun bat hasteko. Igoera honetan, bidexka pista zabal bihurtu dute duela denbora gutxi. Desbideraketarik hartu gabe muinoaren goiko partera helduko gara, non parkeko seinale bat aurkituko dugun.

3 Km. / Oh. 45' *Arroyo de San Zadornil* herrira doan bidea hartu beharko dugu ezkerretatik. Hemendik aurrera bidea askoz politagoa izango da, bide "naturalagoa" izateagatik. **Peña Karriaren** silueta izugarria eskuinetik agertuko da, pinuditik jarraitzen dugun bitartean. PR-ko markak jarraitzen baditugu, ez dugu arazorik izango bide ona segitzeko. Arazoa da, batzuetan markak "galtzen" direla. Ez daude zuhaitzetan margotuta, baizik eta zuhaitzetan itsatsitako txapetan, beraz erreza da ez ikustea (ez daudelako). Argiune batera heltzerakoan, eskumatara jo beharko dugu.


4,25 Km. / 1h. 10' Metro batzuk jaitsi eta gero, bidegurutze batekin egingo dugu topo, aldeetara ateratzen direnak saiheztuz, aurrera doan bidetik jarraituko dugu. Jaitsiera gogor bat hasiko gara, non bidezorua ez den txarra, baina bai gogorra, horregatik kontu handiz ibili beharko gara eremu honetan. Hau bukatu eta gero, beste seinale batek esango digu gure ibilbideak eskuinetik jarraitzen duela. Bidea erosoago bihurtzen da, eta lehenengo ehun urtetik gorago **gaztainodoak** ikusten hasiko gara. Duela urte batzuk arte hemengo biztanleek etekina ateratzen zuten gaztain salmentatik, orain nahiz eta errentagarria ez izan, eremu honetako gauza garrantzitsuenetariko bat bezala mantentzen dira.

5,5 Km. / 1h. 40' Markei kasu egiten, ikusiko dugu nola leku batean ezkerretara bidaliko gaitun. Berrito oso bide polit bati aurre egingo diogu, eta lehen bezala oso azkar galtzen du altuera, horregatik zentzu guztiak bidean jartzen joango gara lasai-lasai behera. Pistak bihurtze batzuk marrazten ditu, eta berrito gaztainondo batzuk agertuko dira. Pista hau bukatu eta gero, eskuinetara joko dugu. Metro gutxi egin eta gero pista batera aterako gara, zein ezkerretatik *Arroyo* herrira eramango gaituen.

7,5 Km. / 2h. 20' Txangoa *San Zadornilen* bukatzea oso aukera ona da, baina , baina Gasteizeraino autobusez falta den bidai luzea ikusita, **Arroyo de San Zadornilen** geratuko gara.

Villafría de San Zadornil-Arroyo de San Zadornil- San Zadornil

PRC-BU 100 y PRC-BU 97 Castaños y molinos bajo la sierra de Arcena



Localización


Este itinerario une los pueblos del Valle de San Zadornil bajo la sierra de Arcena. Son pueblos que para cuya conexión con Burgos deben atravesar obligatoriamente territorio alavés. Al Noroeste el valle se cierra por el imponente cresterio de Peña Karria (1.130 m.) Mientras que al sur Revillallanos en Arcena, cierra el valle. Al Oeste encontraremos a Ribera dando paso al valle de Lalastra.

Algunas joyas

Arroyo de San Zadornil: Se conservan pocos lugares que integren naturaleza, historia, arte y tradición con tanta identidad y calidad como en estas localidades a los pies de la sierra de Arcena. En Arroyo podemos encontrar la espléndida iglesia de Santa María, la bolera el lavadero y un conjunto de casas antiguas recuperadas.

San Zadornil:, una espléndida iglesia románica del siglo XII, la de San Saturnino, preside un elenco de molinos, pajares, casas de aperos y sugerentes viviendas apiñadas en torno a dos estrechas calles.

Bosques: Estamos en uno de los bosques más productivos, forestalmente hablando, de la península Ibérica y que puede servir de modelo de gestión de los Montes de Utilidad Pública. Acebos, quejigos, encinas, pinos y castaños conforman estos bosques. Hasta hace algunos años los vecinos de los pueblos obtenían también algunos beneficios de la venta de castañas.



RECORRIDO

0 Km. / 0h. 0' Nos desplazamos a la vecina provincia de *Burgos*, para realizar un recorrido por el *Parque Natural Montes Obarenes – San Zadornil*. Partiendo desde el pueblo de **Villafría de San Zadornil**, seguiremos las marcas del **PRC-BU 100**. Debemos andar con cuidado ya que desde este punto salen varios senderos balizados. Dejando un abrevadero a la izquierda, iniciaremos el recorrido por una ancha y pedregosa pista que en estos primeros 1'8 Km nos llevará en un cómodo descenso, acompañados de Arces, quejigos y pinos, hasta el límite con Álava, donde podremos ver carteles del *Parque de Valderejo*. Siguiendo las marcas amarillas y blancas, continuaremos por la derecha, para cruzar el arroyo del Ampo y emprender una subida donde el sendero ha sido recientemente transformado en una ancha pista de tierra compactada. Sin tomar ninguna desviación llegaremos al alto donde veremos un poste informativo del parque.

3 Km. / 0h. 45' En este punto deberemos seguir la indicación de la señal que nos dirige girando a la izquierda hacia *Arroyo de San Zadornil*. El camino es mucho más agradable para el paseo desde este punto, ya que ese trata de un sendero más "natural". La imponente silueta de **Peña Karria** nos acompaña por la derecha, mientras seguimos por el pinar. Si continuamos las marcas propias del PR (amarillas y blancas) no tendremos problema, siempre y cuando las marcas no falten, ya que a diferencia de lo que estamos acostumbrados, el balizamiento no se ha hecho con pintura, sino con unas chapas pegadas a los árboles, lo que facilita su "desaparición". Al llegar a un claro, una marca nos indicará que debemos girar bruscamente a la derecha.

4,25 Km. / 1h. 10' Descenderemos unos metros para toparnos con un cruce de caminos, donde desecharemos los que salen hacia los lados para seguir recto. Iniciaremos un fuerte descenso donde el firme no es malo, pero la pronunciada pendiente hará que tengamos que poner toda la atención en la bajada. Al finalizar esta, otra señal vertical nos indica que nuestro recorrido continúa hacia la derecha. El camino se vuelve más cómodo y comenzamos a ver los primeros **castaños centenarios**, que hasta no hace mucho daban a los vecinos ciertos beneficios de la venta de las castañas que recogían todos los otoños, aunque se haya perdido esa costumbre los castaños siguen siendo uno de los mayores atractivos de la zona.

5,5 Km. / 1h. 40' Obedeciendo a las marcas, veremos como, en un punto, nos mandan hacia la izquierda. Iniciaremos un nuevo camino descendente de gran belleza en su primer tramo, pero al igual que el anterior, con un desnivel considerable así que nos lo tomaremos con calma, ya que a pesar de ser cuesta abajo, hay que poner todos los sentidos en el camino. La pista dibuja varios giros y de nuevo grandes castaños nos acompañan en nuestro caminar. Al terminar esta pista, giraremos a la derecha. A los pocos metros saldremos a una ancha pista donde giraremos a la izquierda hacia el cercano pueblo de *Arroyo*.

7,5 Km. / 2h. 20' En un principio, nos planteamos la posibilidad de continuar hasta *San Zadornil*, pero dado el largo viaje de autobús que nos queda hasta Vitoria y lo exigente del recorrido en algunos tramos, es una mejor opción dar por finalizada la salida en el bonito pueblo de **Arroyo de San Zadornil**.